

# Asisko gutuna

2009ko uztaila. 1. printzipioa: Egunero Jainkoarekin

harreman pertsonalean jartzen saiatu 9. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sarea sinesdunak eta zentzuzko bilaketan edo bilaketa pertsonalean dauden lagunak biltzen dituen sarea da. Partaideek, zehazki, partekatzen dutena intuizio bat da; espiritualtasun frantziskotarraren lau funtsezko printzipioak baliagarritasun eta orientazio handikoa izan daitezkeelako intuizioa: otoitza edota nork bere buruarekin isiltasuna, apaltasuna, elkartasuna eta anaitasuna. Txandaka, Asisko Gutun bakoitzak puntu hauetako bat jorratuko du. Bederatzigarren

Gutun honetan lehenengo printzipiora itzuliko gara: otoitza eta Jainkoarekiko harreman pertsonala. Bila dabilen pertsonarentzat, zalantzan dagoenarentzat edo sinesduna den ez dakienarentzat, nola izan daitezke orientagarri puntu honek? Kasu honetan, printzipio hau gogoeta, meditazio, entzuteko barneko isiltasun bezala aurkezten da. Carlos de Foucaultek esan zuen bezala: “Jauna, existitzen bazara, agertu”. Baina, somatzeko entzun behar da, eta entzuteko isiltasuna da beharrezkoa.

## Gogoetarako gaia

### Jainkoa lehenengo eguneroko bizitzan

Badago alderik, eguneroko bizitzan, sinestun eta sinesgabearen artean? Aldatzen da zerbaitetan bizitza? Zergatik uste dugu, Jesusi jarraitzeak baduela zentzurik eguneroko bizitzan?

Egun bakoitzean, eguneroko bizitzan, zailtasunetan, arrakasta dugunean, monotonian edo atsekabeen gabiltzanean, Jainkoaren begiradak alda dezake bihotza. Lanaren erdian isilune batek, entzunean jartzeak, eguneko irakurgaia irakurtzeko unetxoa hartzeak, presentzia bat mantentzeak bide ematen du geure barnea aldatzeko. Jainkoak guk baino lehenago daki zer behar dugun. Joan gaitezke geure barnean presentzia baten aurkikuntza egiten gu geu baino haratago, geure errealitate kaskarrak

susma dezakeen baino haratago. Eta Jainkoa gure maitasun bihurtzen da, gure babes, gure gidari. Eta bizitza, apurka-apurka, maitasunean zentratuz doa.

Eguneroko otoitz- eta isiltasun-une batean, momentu bakoitzean berriro hasteko prest gabiltzala, Kristok berriro egiten du bihotza. Jainkoaren presentziak mantendu egiten du itxaropena. Itxaropena nahigabeetan, itxaropena zentzurik ezean, itxaropenak berea duen maitasun osoan, eguneroko itxaropena Jainkoak maite eta zaintzen gaituelakoan, eta Jainkoa horrela bada egunero eta une guztietan, zentzuz beteak daude eguneroko bizitza, zailtasunak, arrakastak, ahaleginak, monotonian edo atsekabeak.

## Ebanjelioko pasartea: Jn 3, 1-15

Nikodemo zeritzan gizon batek, fariseuen taldekoa eta juduen buruetakoa bera, gauz Jesusengana etorri eta esan zion: –Maisu, ziur gaude Jainkoak guri irakasteko bidali zaituena, inork ez baititzake egin zuk egiten dituzun mirarizko seinaleak, Jainkoa berekin ez badu. Jesusek erantzun zion: –Bene-benetan diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada. Nikodemok galdetu: –Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriro jaio? Jesusek erantzun: –Bene-benetan diotsut: Ezin izango da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakiagandik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak

edonondik jotzen du; entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaioarekin. Nikodemok galdegin zion: –Nola gerta daiteke hori? Jesusek erantzun: –Eta zuk, Israelen maisu izanik, ez dakizu hori? Bene-benetan diotsut: Dakiguna esaten dugu guk, eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure testigantza onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez badidazue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? «Ez da inor zerura igo, zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea hagan jaso zuen bezala, halaxe izan behar du jaso Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten.

## San Frantziskoren testua: Aholkua 27

*Karitatea eta jakinduria non, beldurrik eta ezjakintasunik ez ban. Pazientzia eta apaltasuna non, haserririk eta asaldurarik ez ban. Pobretasuna alaitasunarekin batera non, gutziarik eta diru-goserik ez ban. Lasaitasuna eta meditazioa non, axolarik eta hara-hona ibiltzerik ez ban. Jainkoaren beldurra atezain non, etsaia inondik sartu ezin ban. Errukia eta bereizkuntza non, beharrezko ez denik eta gogorkeriarik ez ban.*

Geure eguneroko bizitzan denetarik aurki dezakegu, eta egunero maitasunera hurbiltzeko edo ez hurbiltzeko aukera daukagu. Frantziskok argi eta garbi esaten digu geure bizitzan Jainkoarekin zerikusia daukaten baloreak eta jarrerak aukeratzen baditugu (karitatea, apaltasuna, alaitasuna, pazientzia, otoitza, errukia...), Jainkoari geure bizitzan egunero presente izaten uzten badiogu, mundua hobeak izango dela, gu geu hobeak izango garela, bizitza hobeak izango dela: ez da beldurrik izango, ezta haserririk, gutziarik, diru-goserik, axolarik ere...

## Sal 16, 2. 5-11

Hau diot: «Oi Jauna, zu zaitut ene Jaun, zuregan baizik ez dut zorionik».

Zu zaitut, Jauna, neure on guztia, neure kopa, bedeinkapenez betea; zure esku nire zoria!

Zoragarria suertatu zaidan alorra, ezin ederragoa nire ondarea!  
Bedeinkatu nahi dut Jauna, berak baitit aholku ematen,

gauzez ere ene barrua berak hezten.  
Begi aurrean dut Jauna etengabe;  
bera ondoan dudala, ez dezaket koloka egin.

Horregatik, alai daukat bihotza,  
pozez jauzika erraiak,  
atsedenean lasai gorputza.  
Ez bainauzu Herio Leizera botako,  
zure fededuna ez duzu hilobian galtzen utziko.  
Bizirako bidea erakutsiko didazu:  
alaitasun betea zure aurrean, betiko zoriona zure ondoan.

## Gutuneko azken hitzak

Zeure inguruan eta munduan alaitasunaren bila zabilta. Ez al dakizu zeure bihotzaren sakonenean bakarrik jaiotzen dela? (Rabindranath Tagore)

## 2009ko abuztuko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abuztuko erreferentzia guztiak:

|               |                       |                |                |                            |
|---------------|-----------------------|----------------|----------------|----------------------------|
| 1 Mt 14,1-12  | 8 Mt 17,14-20         | 15 Lk 1,39-56  | 22 Mt 23,1-12  | 29 Mk 6,17-29              |
| 2 Jn 6,24-35  | 9 Jn 6,41-51          | 16 Jn 6,51-58  | 23 Jn 6, 60-69 | 30 Mk 7, 1-8. 14-15. 21-23 |
| 3 Mt 14,13-21 | 10 Mt 17,22-27        | 17 Mt 19,16-22 | 24 Jn 1,45-51  | 31 Lk 4,16-30              |
| 4 Mt 14,22-36 | 11 Mt 18,1-5.10.12-14 | 18 Mt 19,23-30 | 25 Mt 23,23-26 |                            |
| 5 Mt 15,21-28 | 12 Mt 18,15-20        | 19 Mt 20,1-16  | 26 Mt 23,27-32 |                            |
| 6 Mt 17,1-9   | 13 Mt 18,21-19,1      | 20 Mt 22,1-14  | 27 Mt 24,42-51 |                            |
| 7 Mt 16,24-28 | 14 Mt 19,3-12         | 21 Mt 22,34-40 | 28 Mt 25,1-13  |                            |

### Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Irekitasun hau sarean parte hartzen dugun bakoitzari egitea dagokigu. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2009ko uztaila. 1.go printzipioa. Egutero, Jainkoarekiko

harreman pertsonala landu

9. zenbakia

9. Asisko Gutuna Asis Sarearen lehenengo printzipioari begira jartzen gaitu eta entzuteko dinamikan jartzera gonbidatzen, geure baitako deiak suma ahal ditzagun. Ondoko jarraibideek horretara eraman nahi dute hain zuzen: barne bizitzara hurbiltzera eta bizitza horri entzutera.

### Jainkoa lehenengo, eguneroko bizitzan

Galdera batzuk eginez hasten da hausnarketa. Zuzendu iezazkiozu horiek zeure buruari, geldi zaitez galdera bakoitzean eta jar zaitez erantzuna barnetik etorri zain. Agian lagungarri izango duzu beroriek idaztea.

Nolako egoerak, onak eta txarrak, bizi dituzu zeure bizitzako une honetan? Har ezazu berorien kontzientzia. Inportantea da hori, bestela ez baitiezu sakonerainoko etekinik aterako.

Jainkoa presente egin eta komunikatu egiten da, eguneroko bizitzan gertatzen zaigun guztiaren bitartez. Eman denbora lehen kontziente egindako egoera bakoitzari: zer esan nahi ote digu Jainkoak horietako bakoitzaren bitartez.

Jar zaitez Jainkoaren aurrean gorabehera bakoitzarekin eta utzi bihotzari hitz egiten. Adierazi iezaiozu irtetzen zaizuna: amorrua, alaitasuna, samina, esker ona, laguntzaren beharra, itxaropena, sinesgabetasuna...

### “Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada”

Zu ere urrera zaitezke Jesusengana *gauez* bada ere, Nikodemo bezala. Hurbil zaitezke Harengana zure zalantza eta beldurren ... artean, onartua izango zaren segurtasunez.

Jesus *berri* jaiotzeaz mintzo da. Nikodemo harriturik gelditzen da: nola gerta daiteke hori? guregan ere horrelako zerbait sor daiteke: berriro jaio? Agian, neure muga eta guzti, ez naiz jada pertsona ona, neure fede edo bilaketa pertsonalarekin, are lagun hurkoarekin, gehiago edo gutxiago konprometitua?

Jainkoaren sailean sartzeak, ordea, zerbait berria eskatzen du: erabakia hartzea, arriskatzea, dena kontrolatu nahiari uko egitea, eta galga jartzen eta aurrera egiten uzten ez diguten betiko joerak eta segurtasunak astintzea. Hori da guri dagokigun partea. Baina garrantzitsuena ez dagokigu guri, Jainkoari baizik. Hark bakarrik jaiotzeaz gaitzake berriro, Espiritutik. Jar gaitzean konfiantzaz Haren eskuetan. Hura joango da bere lana egiten.

### Karitatea eta jakinduria dagoen lekuan ...

Seguruenik, dagoeneko zeure bizitzan baduzu, neurri batean, Frantziskok bere aholkuan aipatzen dituen balio eta jarreraren esperientzia. Zer esan dezakezu haietako bakoitza dela eta: zein egoeratan bizitu dituzun, horrela egiteak zer ondorio ekarri dizun, haien aldeko apusturik ez egiteak zer dakarkizun? Oso garrantzitsua da egoera oso konkretuetan zentratzea, orokorrekoetan ibili gabe, zeure bizitzan izan duten benetako eragina sumatu ahal izateko.

Zeure esperientziaz berma zenezake, nolabaiteko neurrian, aholkuaren azalpenak dioena?

### “Zu zara neure ondarea”

Salmogileak gainezka egiten uzten dio bere bihotzari. Zalantzarik gabe, ez da momentuko euforia iragankor hutsa. Salmoko lerro bakoitzaren azpian, indar handiko bizitza sumatzen da, bere zailtasun eta pozekin. Salmogileak egina du, bere bizitzan zehar, hemen astiro begiratzea aholkatu erikiko esperientzia. Argia da ondorioa: Jainkoak merezi du ahalegina, azken batean Hura beti hor dago, presente dago, lagun da... horregatik poztzen da bihotza, eta izate osoak atsedean hartzen... Jainkoa baita *“nire alorra eta ondarea”*, bizitzan tokatu zaigun ondarrerik ederrena.

Egin otoitz salmoaz, irakurri astiro lerro bakoitza. Utzi bihotzari mintzatzeko. Ez saiatu salmogileak sentitzen duena bera zeure egiten. Besterik gabe, izan dakizula abiapuntu zeure esperientziarako.

### Iradozikun praktikoa: Koaderno pertsonala.

Koaderno bat izan daiteke lagungarri, bertan norberaren baitan sumatzen den guztia idazten joateko: galderak, erantzunak, argitasunak, iluntasunak, sentimenduak, sententzioak... berriro bertara itzuli ahal izatea emango dizu, eta zeure aurrerapenak ikustea, behin eta berriro errepikatzen diren aspektuak, zeure bizipenen haria aurkitzen joatea... Lanabes ona duzu, zeure bizitza eskuetan hartzen joateko.